

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

2329

ERABAKIA, 2013ko apirilaren 25ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, Enpresen Administrazio- eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza ezartzekoa.

Helburua izanik Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza ikasteko aukera emango duen plangintza izatea, errektoreordetza honek ikasketok 2013-2014 ikasturtean abian jartzea ahalbidetuko duten erabakiak bultzatu ditu.

Hori guztia kontuan hartuta, Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak 2013ko apirilaren 11n ontzat eman ondoren, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko errektoreordearen proposamenenez, Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.— Zuzenbideko Gradurako, Bizkaiko Atalerako, plaza muga aldatzea, Gobernu Kontseiluak martxoaren 21ean onartua, ondokoen arabera:

	2013-03-21eko GK	2013-04-25eko GK
Zuzenbidea-Bizkaia	150	90
Gradu bikoitza	0	60
Guztira	150	150

Bigarrena.— UPV/EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza lortzera bideratutako arautegia onartzea, agiri honetako eranskinean jasotakoa.

Leioa, 2013ko apirilaren 25a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari nagusia,
JOSE LUIS MARTÍN GONZÁLEZ.

ARAUTEGIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (UPV/EHU) ENPRESEN
ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAKO ETA ZUZENBIDEKO GRADU BIKOITZA
LORTZEKO

1. artikulua.— Helburua.

Arautegi honen helburua da ikasketa programa zehatza artikulatzea, horren bidez Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu eta Zuzenbideko Gradu ikasketa planetako irakasgaiak egiteko aukera emanda (eranskinean jasotakoak, hain zuzen ere), eta, horiek gaindituta, gradu bi titulu lortzeko. Programa horren gestioa Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateari dagokio, kontuan hartuta, baina, arautegi honetako 5. artikuluan akademia batzordeari emandako eskumenak.

2. artikulua.— Ezarpen eremua.

1.— Arautegi hau ezarriko zaie Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko programazio bereziaren babespean Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) emango diren ikasketei.

2.— Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzak bi ikasketen arabera antolamendua dauka, berariaz diseinatua gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleek, programazioan jasotako ikasketak behin gaindituta, aldi berean bi titulu ofizial eskura ditzaten, estatu osoan balioa izango dutenak: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu dagoen titulua eta Zuzenbideko Gradu dagoen titulua.

3.— Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradua ikasketetako araubide akademikoa, ikasketak emateko arauak, ikasleen ebaluazioa eta, oro har, programazioarekin zerikusia daukaten gai akademikoko guztiak arautegi honetan zehaztutakoari jarraituz beteko dira, eta arautegi honetan jasota ez dagoen guztirako, UPV/EHUko arau orokorrak ezarriko dira.

3. artikulua.— Zuzendaritza akademikoa eta betearazlea.

1.— Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko (aurrez aurrez gradu bikoitza) zuzendaritza akademikoa gradu bikoitzeko Batzorde Akademikoari dagokio. Batzordean Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko eta Zuzenbide Fakultateko kideak egongo dira eta osaera, ondorengo artikuluen arabera izango da.

2.— Gradu bikoitzaren koordinatzaile lana txandaka egingo dute, bi ikasturterik behin aldatuta, eta lehenengoa Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatekoa izango da. Dekanorde bat izango da koordinatzaile, eta kasu kasuko dekanak izendatuko du.

4. artikulua.— Batzorde Akademikoaren osaera.

1.— Batzorde Akademikoko kide dira:

a) Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanoa edo haren eskumenak eskuordetuta dituenak.

b) Zuzenbide Fakultateko dekanoa edo haren eskumenak eskuordetuta dituenak.

c) Zuzenbide Fakultateko, Bizkaiko Ataleko, dekanorde-koordinatzailea.

d) Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanorde bat, fakultate horretako dekanok aukeratua.

e) Gradu bikoitzeko koordinatzailea.

2.– Batzorde Akademikoko idazkaria dekanordeetako bat izango da; txandaka arituko dira, bi ikasturterik behin aldatuta.

3.– Batzorde Akademikoko burua dekanoretako bat izango da; txandaka arituko dira, bi ikasturterik behin aldatuta.

5. artikulua.– Batzorde Akademikoaren eginkizunak.

1.– Gradu bikoitzaren Batzorde Akademikoaren eginkizuna izango da, oro har, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzaren zuzendaritza akademikoa, eta, zehatzago ondokoak izango dira batzordearen eginkizunak:

a) Fakultate bietako batzarrei ikasturte bakoitzerako plaza mugak proposatzea, eta batzarrek behin onartuta, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanuari bidaltzea, hark, gradu gainontzeko titulazioetako plaza mugekin batera, arlo horretako eskumenak dituen errektoreordezan beharrezko diren izapideak egin ditzan.

b) Gradu bikoitzaren antolaketa akademikoa.

c) Gradu bikoitzeko irakaskuntzaren kalitatearen ardura izango du eta horren jarraipena egitearena, ikastegietako kalitate batzordeekin elkarlanean.

2.– Batzorde Akademikoak gutxien dela bilera bat egin behar du sei hilabeterik behin. Batzordeko buruak deituta egingo da bilera edo batzordeko bi kideren eskariz.

3.– Batzorde Akademikoak aho batez hartuko ditu erabakiak, eta adostasunera heltzea ezinezkoa bada, arloan arloko eskumenak dituen errektoreordeak ebatziko du gaia.

6. artikulua.– Gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak.

Ondokoak dira gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak:

a) Batzorde Akademikoak hartutako erabakiak betetzea.

b) Gradu bikoitzaren ordezkari izatea.

c) Batzorde Akademikoari emandako gainerako eginkizunak.

d) UPV/EHUko arautegiari jarraituz gradu koordinatzaileari dagozkion gainontzeko eginkizunak.

7. artikulua.– Gradura sartzeko baldintzak eta irizpideak.

1.– Ikasleak UPV/EHUko ikasleak onartzeko zehaztutako araudi orokorrari jarraituz onartuko dira.

2.– Gradu bikoitzeko onarpen nota kalkulatzeko, kontuan hartuko da Zuzenbideko Gradu eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu gai espezifikoaren haztapenetik lortutako kalifikaziorik onena.

8. artikulua.– Matrikula eta tituluak ematea.

1.– Administrazio ondorioetarako, gradu bikoitza Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatera egongo da lotuta.

2.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzean onartutako ikasleek matrikula gauzatu beharko dute, UPV/EHUko gainontzeko ikasleen baldintza berberetan.

3.– Matrikula egitean, arlo horretako arauetan zehaztutako prezio publikoak ordainduko dituzte eta arauotan edo legean jasotako murrizketak izateko eskubidea izango dute egoki izanez gero.

4.– Gradu bikoitzeko programa gainditu ondoren, Zuzenbideko Graduuko titulua eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduuko titulua eskatua ahal izango du horretarako prezio publikoak ordainduta.

9. artikulua.– Arlo akademikoko arauak.

1.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu bikoitzean onartutako ikasleek eranskinean jasotako ikasketa programako irakasgaietako baino ez dute egingo matrikula ikasturte bakoitzean.

2.– Lehenengo mailan, ikasleek mailako kreditu guztietarako egin beharko dute matrikula. Gai-nontzeko matrikuletan, gutxien dela 66 ECTS kreditu hartu beharko dituzte matrikulan, ez bada gradu bikoitzeko bukatzeko horiek baino kreditu gutxiago dituztela.

10. artikulua.– Ebaluazioa.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitzeko ikasleei irakasgaien ebaluazioa egiteko, gainontzeko titulu ofizialetako ikasleentzako zehaztutako ohiko prozedurari jarraituko zaio, eta datak graduoko titulu ofizial guztietarako Gobernu Kontseiluak ikasturte bakoitzerako onartutako egutegiaren arabera izango dira.

11. artikulua.– Gradu bikoitzaren arau akademikoak.

1.– Lehenengo ikasturtea amaitzean, ikasleak matrikulako kredituen % 60 izan behar du gaindituta.

2.– Gainerako urteetan, ikasleak matrikulako kredituen % 60 izan behar du gaindituta. Edozelan ere, ikasleak gehienez ere 8 ikasturtetan amaitu behar du programa.

3.– Baldintza horietako bat betetzen ez duen ikasleak bertan behera utzi beharko ditu gradu bikoitzeko ikasketak, baina aukera izango du Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduoko edo Zuzenbideko Graduoko ikasketetan jarraitzeko (berak aukeratuko du zeinean jarraitu). Horrela-koetan, eskaria egin beharko du kasuan kasuko dekanotzan. Matrikula kasuan kasuko fakultateak zehaztutako epean eta eran egingo du ikasleak.

Era berean, ikasleak, bere borondatez, gradu bikoitzeko ikasketak bertan behera uztea erabakiz gero, aurreko paragrafoan zehaztutakoari jarraituko dio Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan edo Zuzenbideko Graduan ikasketekin jarraitzeko.

4.– Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua eta Zuzenbideko Gradua lortzeko kredituak, gradu bikoitzeko ikasketa programako irakasgai guztiak, Gradu Amaierako Lana barne, gainditu ondoren aitortuko zaizkio ikasleari.

12. artikulua.– Arautegia onartzea.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzendaritzako Graduan matrikulatutako ikasleek arautegi honetan jasotakoari jarraitu beharko diote, eta jasota ez dagoenerako, UPV/EHUko arautegi orokorrari.

AZKEN XEDAPENA

Arautegi hau 2013-2014 ikasturtean sartuko da indarrean.

ERANSKINA

Ikasketa programa: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako eta Zuzenbideko Gradu Bikoitza

	1. lauhilekoa	kred.	2. lauhilekoa	kred.
1. maila	Konstituzio Zuzenbidea I	6	Konstituzio Zuzenbidea II	7
	Zuzenbidearen Historia	6	Zuzenbide Zibila I	6
1. lauhil. 38	Zuzenbidearen Teoria	8	Historia Ekonomikoa	6
2. lauhil. 37	Enpresa Ekonomiarako: sarrera	6	Ekonomiarako Sarrera II: Makroekonomiaren Oinarriak	6
GUZTIRA: 75	Ekonomiarako Sarrera I: Mikroekonomiaren Oinarriak	6	Matematika II	6
	Matematika I	6	Erromatar Zuzenbidea	6
	38		37	

2. maila	Konstituzio Zuzenbidea III	6	Administrazio Zuzenbidea I	6
	Europar Batasuneko Zuzenbidea	9	Nazioarteko Zuzenbide Publikoa I	6
1. lauhil. 39	Zuzenbide Zibila II	6	Zigor Zuzenbidea I	6
2. lauhil. 36	Mikroekonomia	6	Zuzenbide Prozesala I	6
GUZTIRA: 75	Finantza Eragiketen Matematika	6	Enpresa Ekonomia: Antolakuntza eta Zuzendaritza (6)	6
	Kontabilitaterako sarrera	6	Finantza Kontabilitatea (6)	6
	39		36	

3. maila	Zuzenbide Zibila III	9	Merkataritza Zuzenbidea I	9
	Zigor Zuzenbidea II	6	Administrazio Zuzenbidea II	6
1. lauhil. 39	Kostuen Kontabilitatea	6	Goi Mailako Finantza Kontabilitatea	6
2. lauhil. 33	Datuen Estatistika eta Analisia	6	Enpresari Aplikatutako Estatistika	6
	Merkataritza Zuzendaritza: sarrera	6	Merkataritza Zuzendaritza: Politikak	6
GUZTIRA: 72	Nazioarteko Zuzenbide Publikoa II	6		
	39		33	

4. maila		Zigor Zuzenbidea III	6	Merkataritza Zuzenbidea II	9
		Finantza Zuzenbidea II	8	Zuzenbide Zibila IV	7
	1. lauhil. 38	Ekonometria	6	Finantza Zuzendaritza: Finantzaketa (6)	6
	2. lauhil. 34	Enpresaren Zerga Araubidea	6	Kontabilitateko Egoera Orrien Baterakuntza	6
		Makroekonomia	6	Egitura Ekonomikoa	6
	GUZTIRA: 72	Administrazio Zuzenbidea III	6		
			38		34

5. maila		Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea I	6	Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea II	6
		Zuzenbide Prozesala II	6	Zuzenbide Prozesala III	6
	1. lauhil. 36	Nazioarteko Zuzenbide Pribatua I	6	Nazioarteko Zuzenbide Pribatua II	6
	2. lauhil. 30	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Politika	6	Estrategia Zuzendaritza: Enpresa Hazkundera eta Garapena	6
	GUZTIRA: 66	Finantza Zuzendaritza: Inbertsioak	6	Enpresa Kudeaketarako Sistema Informatikoak	6
		Kontabilitate Analisia	6		
				36	30

6. maila	Zuzenbideko Gradu-Amaierako Lana		6
	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradu- Amaierako Lana		12
	Kanpoko Praktiak		12
GUZTIRA: 30			

Guztira 390

ECTS kredituak mailaka

Maila	Oinarrizko prestakuntza	Nahitaezko prestakuntza	Kanpoko praktikak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1.a	75	--	--	--	75
2.a	39	36	--	--	75
3.a	--	72	--	--	72
4.a	--	72	--	--	72
5.a	--	66	--	--	66
6.a	--	--	12	18	30
Guztira					390